

Nork gobernatzen du internet?

Euskal komunitate
digitala erronka
globalaren aurrean



euskarabildua
TEKNOLOGIA • BURUJABETZA

x o

>>

Erraldoi teknologikoek mundua gobernatzen duten aroan...



Euskal komunitate digitalaren ekimenak eta aukerak aldarrikatzen.

Beste urte batez, euskal komunitate digitalaren saretzearen lekuko izan zen San Telmo museoa, azaroaren 4an.

Potentzia handien indar militar zein teknologikoak une batetik bestera mundua hankaz gora jar dezaketen garai hauetan, **geopolitika, Interneteko gobernantza eta euskal komunitate digitalaren esperientziak** izan genituen hizpide Euskarabildua jardunaldian.

Goiz batek askorako eman zuela uste dugu eta behin aurtengoa amaituta, hurrengo urtekoa prestatzen hasteko irrikitan gaude. Lehenago ordea, lerro hauen bidez, bertaratu zineten ehundik gora lagunei eta streaming bidez jarraitu zenuten guztioi **eskerrak eman nahi dizkizuegu**, beste urte batez gaiak duen garrantzia aitortzeagatik eta gure inguruan izateagatik; **Euskarabildua** guztiok egiten dugulako.

BIG TECH



x o

>>

Erronka globalaren aurrean gure jokabidea definitzeko une estrategikoan gaude.


Big Tech-ek mundua gobernatzen duten garaian teknologia burujabetza beharrezkoa da

Korporazio teknologiko handiek (Big Tech) Estatu-nazioetako agintarien eskutik, euren negozio ereduen mesedetan, erabaki politikoak baldintzatzeko gai dira. Ondorioz, mundua gobernatzen dute. Horregatik, **teknologia burujabetza eta burujabetza digitala** jomugan dituen estrategiak eta ibilbideak inoiz baino zentzu gehiago dauka, norberarena defendatzeko eta potentzia handien erabaki interesatuen aurrean autonomia izateko.

Burujabetzak gobernantza eredu deszentralizatua eskatzen du. Hori posible al da?

Deszentralizazioan oinarrituta jaio zen Internetek badu erakunde bat, AEBen legearen baitan sortua izan arren, gobernutik at dagoena eta Interneteko izen eta zenbakiak ezartzearen ardura duena. Erakunde hori ICANN da, 1998. urtean irabazi asmorik gabe sortutako erakundea. **ICANN Interneteko gobernantza saiakera bat da. Bertan ordezkaturata dago euskal komunitate digitala, PuntuEUS Fundazioaren bidez.** Baina euskal komunitatearen presentzia Internet globalean handitu daiteke.





Lokalki egin, globalki eragin

Garrantzitsua da komunitate lokalek eta erabiltzaileek beren nortasuna Internet global horretan adieraztea, eta horrek esan nahi du, besteak beste, plataforma handien alternatiba diren komunitate, euskarri eta tresna digitalak bultzatu behar direla, egitasmo lokalagoak. Adibidez, gmail.com posta orokorren ordez, ni.eus euskarazko posta; adimen artifizialaren eredu handien aurrean, euskarazko teknologia propioa; konpainia handien tresna informatikoek bahitutako irakaskuntza eredu baten aldean, belaunaldi berriak prestatzeko kalitatezko ahalduntze digitala bultzatuko duen hezkuntza sistema...

Zorionez, euskal komunitate digitala bizirik dago eta horren lekuko aurtengoan Erakusleihoa atalean erakutsi ditugun hiru esperientziak.

Erakusleihoa

X O



>>

Baionako Bernat Etxepare Lizeoa

Hezkuntzan ahalduntze digitala landuz.




X O



>>

Zibergara

Debagoienan teknologia burujabetza sustatzeko sortutako elkarte.



X O



>>

Zikloan

Datuen pribatutasuna lehenesten duen hilerokoaren jarraipenerako aplikazioa.



Nork gobernatzen du Internet?

#14. EDIZIOA • Euskal komunitate digitala erronka globalaren aurrean

GEOPOLITIKAK, TEKNOLOGIAREN BOTERE KONTZENTRAZIOA ETA EUROPAREN BURUJABETZA

• MANUELA BATTAGLINI + CRISTINA CAFFARRA



ERRALDOI TEKNOLOGIKOEN (BIG TECH) ERABAKI POLITIKOAK BALDINTZATZEN DITUZTE. ETA MUNDUA GOBERNATZEN DUTE.



EUROPA EMERGENTZIA EGOERAN DAGO, ALOR DIGITALEAN ATZEAN GELDITU DA.

HISTORIAN ZEHAR PRESIDENTE EZBERDINEK HARTUTAKO ERABAKIEK EKARRI GAITUZTE EGOERA HONETARA. CLINTON, BUSH, OBAMA...



EUROSTACK ERRESILIENTZIA DIGITALERAKO EKIMENA. EUROSTACK PROIEKTUA DA MODU BAT ESATEKO EUROPAK TALENTUA ETA GAITASUNA DUELA BEKE KABUZ FUNZIONATZEKO



HEZKUNTZAREN DIGITALIZAZIO ARDURATSUA

• IRATXE ESNAOLA



AHALDUNTZE DIGITALA HELBURU: GAITASUN DIGITALAK GARATU, ERABILTZAILEA BOTERETU...



TRESNA DIGITALEN INTEGRAZIOAK PEDAGOGIKOA IZAN BEHAR DU.

HEZKUNTZAK FUNTZIO SOZIAL ARGIA DUKA ETA TEKNOLOGIAK HORI INDARTU BEHAR DU.



HAURREN ESKUBIDE DIGITALAK BERMATU BEHAR DIRA.



HEZKUNTZAREN DIGITALIZAZIOAK BURUJABEA, ETIKOA ETA ARDURATSUA IZAN BEHAR DU.

INTERNET GOBERNATZEKO MODUAK ETA BIDEAK

• AMADEU ABRIL + JOSH WALINO



INTERNETKO GOBERNANTZA EZ DAGO GOBERNU BAKAR BATEN MENPE, SARE GLOBAL BATEN MENPE BAIZIK (GOBERNUAK, ENPRESAK ETA GIZARTE ZIBILAK)



EUSKAL KOMUNITATEA GOBERNANTZA GLOBALEAN

- ✓ PUNTUEUS-en PARTE HARTZEA ICANN-en
- ⊗ EZ GAUDE POLITIKA PUBLIKOAK EZTABADATZEN DIREN GUNEETAN

HIRU EREMU GAKO:



→ ICANN

DOMENU-IZENAK ETA IDENTIFIKATZAILE TEKNIKAK KOORDINATU.

→ IGF (INTERNET GOVERNANCE FORUM)

PRAKTIKA DIGITALAK MODU IRERKIAN EZTABADATZEKO NBE-REN FOROA.

→ ISOC (INTERNET SOCIETY)


INTERNET IRERKIA, SEGURUA ETA FIDAGARRIA SUSTATU.

EUSKARAZKO HIZKUNTZA TEKNOLOGIA PROPIOA POSIBLE DA?

• AITOR SOROA + ELIXABETE GARCIA



EREDU HANDIEK EZ DUTE EUSKARAREN KALITATEA BERMATZEN. EUSKARAREN GARAPENA EZIN DA UTZI ENPRESA HANDIEN ESKU



EZIN GARA IRLATAN MODU ISOLATUAN ARITU.

BEHARREZKOA DA TEKNOLOGIA PROPIOA SORTZEA ETA HAU MODU ETIKO ETA LEGALEAN SORTUTAKOA DELA ZIURTATZEN.



IRERKIAN DAUDEN BALIABIDEAK HARTU ETA EGOKITU BEHAR DITUGU, ETA ERATUTAKO MODELOAK LIBREAN JARRI.



GRAPHIC RECORDING-A → MAKE IT VISUAL

euskarabildua



ni PUNTU
EUS

Zure pribatutasuna, gure hizkuntzan.

Euskarazko posta eta hodei-zerbitzua:
sortu, gorde eta partekatu zure fitxategiak.



Posta



Egutegia



Fitxategiak



Ofimatika
-aplikazioak



Kontaktuak



Atazak



Galdetegiak



Domeinua




Bideo-deiak



Txat-a

Ni.eus ez da ohiko posta eta hodei zerbitzua:
publizitaterik gabeko, pribatutasuna errespetatzen
duen eta euskaraz sortutako zerbitzua da, eta
erabiltzaile mota desberdinen beharretara egokitzen da.

Batu zaitez euskal komunitate digitalera!



Erreserbatu zure **ni.eus** izena
inork baino lehen!



badator.ni.eus



PUNTU
EUS

iametza

AZKUE
FUNDAZIOA